



## ZER DEMONTRE DAGO AULKIEN AZPIAN?

testua: **Harkaitz Cano**

irudiak: **Lorena Martínez Oronoz**

*Mila gau, 5*

ISBN: 978-84-7681-961-6

Urtea: 2016 / 112 or.

17x22 cm barnea koloreetan, azal gogorrean koadernatua

**15,00 €**

«Paradisua agian...»

Liburu honek Harkaitz Canoren testuak biltzen ditu, Lorena Martínez Oronozen irudiekin batera.

Hogeita hiru testu poetiko, ipuin labur, aforismo edo jolas-proposamenak dira, alboan dituzten irudiekin oihartzun bitxiak sortzen dituztenak.

Sormen lana, txandakako eta norabide bikoitzeko izan da. Zenbaitetan Lorenak ilustratu du Harkaitzek sortutako testua eta, beste batzuetan berriz, iruditik abiatuta idatziak izan dira.

\* \* \*



**HARKAITZ CANO**

Zabua zen txikitan gehien gustatzen zitzaion aulkia: ez du hankarik eta bi behar izaten dira funtzionarazteko.

Horregatik da gaur ere kulunkaulkien zale, geldirik egon arren mugitzea ahalbidetzen dutelako, irudimenak bezalaxe. Aitak bulegoko aulki gurpilduna ekarri zionetik, arreba bertan jarri eta zurrunbilo batean erabiltzen zuen egunero, NASAn lan egiteko entrenamendu egokia zen aitzakian. Tabureteetara igo eta liburutegiko goiko apaletan ezkutatuak aleak arakatzea maite du.



**LORENA MARTÍNEZ ORONOZ**

Urtebete zuela, bere izena idatzia zeukan aulki bat oparitu zioten. Familia guztia esertzen zen bertan, bera salbu. Nerabezaroan aulki birakari batean jo zuen pianoa.

Hainbeste jirabirarekin zorabiatu egiten zenez, laga egin zuen solista karrera. Ez zaizkio gustatzen, ez marka uzten duten aulki gogorregiak, ez xagu-tranpek bezala harrapatzen zaituzten besaulki bigunegiak ere. Gorroto ditu tren eta autobusetako eserleku beroak, baina maite eguzkiak epeltzen dituenak: orduak eman ditzake haietan eserita.